



300 txirrinduzale ibili dira Plazaolan barrena, eguraldiak ez lagundu arren

PARTAIDETZA ▶ Leitzaldeko parte-hartzaile gutxi samar izan ziren igandeko bizikleta martxan ▶ 7



Bizikleta martxako parte-hartzaile batzuk Leitzaranen. JAIONE ASTIBIA



OLAIA ESKITXABEL

Belloso eta Renobales pilotariak, irabazle

AMEZKETA ▶ Lehena nagusietan eta bigarrena jubenetan; kadeteetan Jauregi izan da txapelkun XV. Joxean Tolosa Txapelketan ▶ 5

TOLOSA ▶

Tolosak 1-0 irabazi dio Zarautzi Berazubin

Garaipena «merezi zutela» diote ▶ 3

TOLOSA ▶

Ondo hasi dute rally denboraldia Ezenarrok eta Tobarrek

Bostgarren sailkatu dira Asturiasko Printzea rallyan bere mailan ▶ 2



HITZA

IRURA ▶

Sanmielak ostiraletik urriaren 3ra izango dira

Scalextric lasterketa da berrikuntza ▶ 4

RALLYA ▶

Ezenarro-Tobarrek primeran ekin diote rally denboraldiari

Asturiasko Printzea rallyan, Oviedon (Espainia), bosgarren postuan sailkatu ziren Xabier Ezenarro eta Joseba Tobar tolosarrak, Citroën C-2 Sport Car mailan

LEIRE MONTES

Denboraldiko bigarren lasterketa korritu zuten hilaren 11n eta 12an Xabier Ezenarro eta Joseba Tobar auto gidari eta kopilotu tolosarrek: Asturiasko Printzea rallya, Oviedon (Espainia). Eta denboraldiari primeran ekin diotela erakutsi zuten, beste behin: bosgarren zailkatu ziren, Citroën C-2 Sport Car mailan; sailkapen orokorrean, hemeretzigarren izan ziren.

85 autok hartu zuen parte Asturiasko rallyan. Horietatik, 22 ziren Citroën C-2-ak, bikote tolosarra tartean. Aurten, Espainiako Txapelketarako baliagarria izateaz gain, Europako Txapelketarako ere puntuagarria izan da proba. «Bi egunetako lasterketa zen: larunbatean hiru tramo egin behar genituen, bakoitza hiru aldiz; eta igandean beste hiru, bi aldiz bakoitza. Tramorik luzeena 27 kilometrotakoa zen, Libardon, Asturias aldean tramorik eza-gunetarikoa», azaldu du Joseba Tobar kopilotuak.

Prestaketetan buru-belarri aritu ziren tolosarrak: «Astean zehar egin beharreko lanak ondo egin eta gero, larunbat eta igandeko dena prest geneukan: tramoetako oharrak ondo jarrita, autoa prest, eta gu ere gogotsu. Gauza bat zegoen argitu nahi eta ezin genuena: eguraldia. Asturiasen Peio Zabalarik ez baitago, eta Maldonadori kasu egin behar», azaldu du barre artean.

Oviedoko plaza nagusitik abiatu zen lasterketa larunbatean, eta lehen asistentzia Pola de Sieron egin zuten tolosarrek. «Urdirutasuna nabarmek-



Xabier Ezenaroren eta Joseba Tobarren, bihurtuena hartzen, Asturiasko rallyan. HITZA

ASTURIASKO PRINTZEA RALLYA ▶

SAILKAPEN OROKORRA

Izena	Autoa
1. Alberto Hevia	Renault Clio Super 1.600
2. Enrique Ojeda	Peugeot 206 Super 1.600
3. Sergio Vallejo	Fiat Punto Super 1.600
19. Xabier Ezenarro	Citroën C-2 Sport Car

na zen, auto berria zen, eguraldia lainotsu zegoen, gu gauzak ondo egiteko gogotsu ginen... Ondo astea garrantzitsua zela bagenekien, eta gogor ekin genion aurreneko tramoari».

Larunbatean, hirugarren

Gogor ekin, eta emaitza bikaina lortu, gainera: C-2 txapelketako denborarik onena egin zuen Tolosako bikoteak, eta sailkapeneko lehen postuan jarri ziren, beren mailan. «Egu-

na bukatzerako, 425 kilometro egin eta gero, 145 tramo kronometratuak, hirugarren postuan geunden, bigarrena hiru segundora eta aurrena hamalaura. Aurreneko zortzi postuetan ez zegoen segundo askoko alderik, eta bagenekien igandeko eguna oso gogorra izango zela».

Esnatu eta berehala lehen-dabiziko ezustearrekin egin zuten topo tolosarrek: eguraldi txarra; eta, okerragoa dena, errepidea bustita. «Aurreneko

asistentziara iritsi bezain pronto autoa gora, gurpilak kendu eta bustikoak jarri behar izan genituen».

Beren helburua argi zuten Ezenarrok eta Tobarrek: bukatu, eta puntu batzuk hartu txapelketari begira. «Aurreneko hiru tramoetan denbora pixka bat galdu genuen, eta hirugarrenetik bosgarren postura jaitsi ginen. Azkeneko hiru tramoak geratzen ziren, eta posturen bat berreskuratzeko ahaleginean, gurpilak aukeratzeko garaian oker ibili ginen. Beti ezin asmatu, eta azkenean bosgarren postuarekin konformatu behar...».

Zorte txarrak ez zien podiumera igotzen utzi, baina Ezenarro eta Tobar Citroën C-2 txapelketaren buruan egoteko borrokatuko direla erakutsi dute berriro. Eta denboraldia hasi besterik ez da egin.

EUSKARA ▶

Arramele AEK euskaltegian izen-ematea zabalik

Ikasturte berriaren atarian, Arramele AEK euskaltegiak matrikulazio epea zabaldu du. Maila guztietako ikastaroak eskaintzen dituzte euskaltegian, hau da, behe, erdi eta goi urratsetakoak. Horietaz gain, EGA, alfabetatze nahiz hizkuntza eskakizunetarako ikastaroak ere daude aukeran. Ostiralean amaituko da matrikulazio epea. Izen eman nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak bihar, etzi eta etzidamu egoitzara jo besterik ez du (Kale Nagusia 7, 2. solairua), 18:00etatik 20:30era, edo 943 59 17 04 telefono zenbakira deitu.

HITZALDIA ▶

Elikadura hizpide, gaur, Kultur Etxean

Aldaketak elikaduran eta joera berriak izenburupean, Ana Revilla makrobiotikak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Gorrrotxategi dietetikak antolatuta da saioa.

HEZKUNTZA ▶

Ikastaro eskaintza zabaldu Helduen Hezkuntzan

2004-2005 ikasturterako izen-emate epea zabalik da Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (HHI-EPA). Zenbait ikastaro daude aukeran: DBH graduatua, unibertsitateko sarrera 25 urtetik gorakoentzat, etorkinentzat gaztelaniazko ikastaroak, informatika, hizkuntzak, irakurketa eta idazketa hastapenak... Informazio gehiago eta izen-ematea Igaralde kaleko 23-25ean (943 67 26 60).

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa CF - Zarautz	1-0
Saillkapena ▶	
1. Ordizia	7 puntu
2. Tolosa CF	7 puntu
3. Orioko	6 puntu
4. Trinxerpe	6 puntu
5. Mondragon	5 puntu
6. Hondarribia	5 puntu
7. Zestoa	5 puntu
8. Touring	4 puntu
9. Mutriku	4 puntu
10. Pasajes	4 puntu
11. Real Union B	4 puntu

Lurraldeko 1. maila.

Aurrera - Beti Kozkor	1-1
Mariño - Tolosaldea	1-0
Saillkapena ▶	
1. Lengokoak	3 puntu
2. Euskalduna	3 puntu
3. Amara Berri	3 puntu
4. Irun 1902	3 puntu
5. Ordizia	3 puntu
6. Mariño	3 puntu
7. Ostadar	1 puntu
8. Martutene	1 puntu
9. Allerru	1 puntu

10. Vasconia	1 puntu
11. Astigarragako	0 puntu
12. Behobia	0 puntu
13. Tolosaldea	0 puntu
14. Roteta	0 puntu
15. Beti Ona	0 puntu

Lurraldeko 2. maila.

Lazkao - Danena	3-3
Sanpedrotarra - Intxurre	3-0
Saillkapena ▶	
1. Sanpedrotarra	3 puntu
2. Usurbil	3 puntu
3. Lazkao	1 puntu
4. Danena	1 puntu
5. Amaro	0 puntu
6. Lasarte Oria	0 puntu
7. Intxurre	0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa - Casco Viejo	5-0
----------------------	-----

Kadeteen Euskal Liga.

Danak Bat - Tolosa	3-0
--------------------	-----

ARETO FUTBOLA

1. A maila.

Sestao - Ibarra	5-2
Cesar Rueda Seguros - Ibarra GA	3-0

FUTBOL 7

1. maila.

Lanbroa Dickens - St. Etienne CB	0-0
Cesar Rueda Seguros - Ibarra GA	3-0
Saillkapena ▶	
1. Cesar Rueda Seguros	3 puntu
2. Robers	3 puntu
3. B. Ignacio - Hondarribia	3 puntu
4. Zibibo Dance Club	3 puntu
5. Zardoya Otis	3 puntu
6. Knauf Decoracion Nuñez	3 puntu
7. Perku taberna	1 puntu
8. Callejo Lanperna	1 puntu
9. Lanbroa Dickens	1 puntu
10. St. Etienne Cafe Bar	1 puntu
11. Bataplan	0 puntu
12. Krons	0 puntu
13. Irish Guinness	0 puntu
14. La Kabutzia	0 puntu
15. Easo motor	0 puntu
16. Ibarra Gazte Asanblada	0 puntu

2. maila A.

Eibartarra Dance Club - Pub Egarrí	0-0
R. Izkiña Pasaia - Bar Shanti Kirolak	2-1
Saillkapena ▶	
1. Disco Bar Egur	3 puntu
2. Aseplan	3 puntu
3. Ron Cartavio	3 puntu

4. Encofrados Iguazuri	3 puntu
5. InTheLine	3 puntu
6. R. Izkiña-Pasaia	3 puntu
7. Ekin Fisioterapia zentroa	1 puntu
8. Tberna Dani	1 puntu
9. Pub Egarrí	1 puntu
10. Eibartarra Dance Club	1 puntu
11. Bar Shanti Kirolak	0 puntu
12. Fernax Instalaciones CG	0 puntu
13. Papeleria Tamayo	0 puntu
14. Nin Climatizacion	0 puntu
15. Calo Rojo Pyxies	0 puntu
16. Sagardotegi Akelenea	0 puntu

PILOTA: KLUBEN ARTEKOA

Kadeteen 1. maila.

Aurrera Saiaz - Tartaloebe	22-5
(Xabier Tellebea)	
Zazpi Iturri - Usurbil	22-8
(Ropon-Leunda)	
Zazpi Iturri - Eskoriatza	
(Iraola-Jauregi)	22-11
Zazpi Iturri (Mintegi)- Bergara	22-12

Jubenilen 1. maila.

Aurrera S. (K. Galaraga)- Tartaloebe	22-5
Zazpi Iturri - Bergara	22-2
(Elurbe-Mendizabal)	
Azpeitia - Zazpi Iturri	22-15

(Zabala-Legorreta)

1 Seniorren 1. maila.

Real Sociedad - Aurrera Saiaz	22-9
(Iker Huarte)	
Eibar - Aurrera Saiaz	22-12
(Mikel Beloso-Igor Zabala)	

1 Seniorren 3. maila.

Mundarro - Aurrera Saiaz	1 2-22
(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)	

2 Seniorren 3. maila.

Beloki - Aurrera Saiaz	2 1-22
(Ugaitz Renobales-Julen Mujika)	

2 Seniorren 3. maila.

Legazpiko - Aurrera Saiaz	3 1-22
(Unai Aspe-Ion Orbegozo)	

Jubenilen 1. maila.

Aurrera Saiaz - Tartaloebe	22-5
(Koldo Galarraga)	

Afizionatuen 2. maila.

Zazpi Iturri - Elgoibar	22-18
(Iriarte-Beloki)	

Nagusien maila.

Zazpi Iturri - Zazpi Iturri	22-8
(Baez anaiak-Ropon/Garmendia)	

FUTBOLA ▶

Hirutik, bi

Tolosa CFk irabazi egin igandean Zarautz taldeari (1-0)

IRATXE ETXEBESTE

Merezitakoa, beste behin ere. Tolosa CFk 1-0 irabazi zuen igandean Zarautzko taldearen kontra Berazubin jokatu zuen partidua. Erraz hartu zuten aurrea markagailuan Mendizabalen eta Luluagaren mutilek neurketa hasi eta hamabi minutura —Oruek sartu zuen gola, Regillagaren laguntzarekin—, baina emaitza horri eustea ez zen lan erraza izan. Izan ere, gola sartu eta berehala urduri jartzen hasi ziren Tolosa-koak; aurkariak ere ez zeuden norgehiagoka galtzeko prest.

Indartsu irten zuten Zarautz-koek zelaira, eta haiek izan ziren uneoro partiduaren erritmoa ezarri zutenak. Hala ere, gol aukerarik ez zuten sortu ia, eta horrek galdu zituen. Etxekoek, ordea, sarritan lortu zuten baloia saretik gertu jartzea, eta Lasak eta Blancok, batez ere, ezinegona ekarri zuten behin baino gehiagotan kanpotan.



Ondo aritu ziren Tolosa CFko mutilak igandean Berazubin. JOXEMI SAIZAR

rrren kalterako. «Kostatu egin zitzaizgun partidua irabaztea, baina, egia esan behar bada, guk merezi genuen garaipena», esan du Tolosa CFko ordezkari Jose Mari San Sebastianek. Hirutik bi norgehiagoka irabazi ditu Tolosa CFk denboraldi hasieratik.

Tolosako mutilak gogotsu ikusten dituzte zuzendaritzako kideek, eta zelaira ateratzen diren bakoitzean «duten guztia» ematen dutela diote. Haiek ere gustura dira horregatik.

Asteburuan Erretereria-Oreretan jardungo dute Touring taldearen aurka.

FUTBOLA ▶

Tolosako neskek bikain hasi dute denboraldia

3-1 irabazi diote Grosekori; aurrerantzean ere «ildo beretik» jarraituko dutela diote

I. ETXEBESTE

Tolosa CFko neskek 3-1 irabazi zuten larunbatean Donostiako Matigoxotegi zelaian Groseko taldearen aurka. Galtzen hasi ziren, baina lehen zatia bukatzerako buelta eman zioten markagailuari Leire Arranz eta Josune Corderoren

golei esker. Bigarren zatian etorri zen hirugarrena, Irati Garroren eskutik.

«Aurrendenboraldian egingdako lanari esker aurkaria baino gehiago izan ginen», esan dute entrenatzaileek. Jokalari guztiek hartu zuten parte, eta «etorkizunerako ildo beretik jarraitu behar dugu».

Leidor - Tolosa
Cubako Ballet Folkloriko Nazionala

Irailak 24, ostirala, 20:00
Sarrerak Kultur Etxean

Neska bat behar da Tolosako JATETXE batean lan egiteko.
943 11 98 28

TEKNIKARIA BEHAR DA
Unibertsitate titulua • Ega • B1 gidabaimena
Baloratuko da: Herri txiki eta AGENDA 21 en ezagutza CURRÍCULUM-ak IRAILAK 30erako.
TOLOMENDI 293 P.K. • TOLOSA

ANOETA ▶ GIZARTEA

Larunba...plan! ekintzak
laster jarriko dira abianIzena emateko epea 24an amaituko da;
urriaren 2an hasiko dira ekintzak

G. AZKUE

Anoetako Udalak, larunbat arratsaldetan ekintzak antontuko ditu urriaren 2tik aurrera. LH1 eta DBH4 bitarteko ikasleak izango dute ekintza hauetan parte hartzeko aukera.

Urriaren 2tik Aste Santuak bitarte antolatuko dituzte irteerak eta tailerrak Anoetako Ikastolan. 17:00etatik 19:00etara izango dira larunbatero. Eta horretaz gain, urtean ze-

har, egun osoko irteerak eta asteburuko irtenaldiak egiteko aukera izango dute.

Gazteek irailaren 24a bitarteko izango dute izena emateko aukera udal bulegoetan. Gehinez, 40 partaide onartuko dituzte.

Matrikula 54 euro ordaindu beharko dituzte, baina prezio honetan ez daude sartuta egun osoko eta asteburuko irteerak. Matrikula kontu korrontetik kobratuko dute antolatzaileek.

IRURA ▶

Bizikleta jolasak
Mugikortasun
Astearen baitan

Iruran ere Mugikortasun Iraunkorraren Astearen mugilduta dabilta. Gaur, bizikleta jolasen txanda izango da, Oria eskolakoek antolatuko dituzte jokoak: 15:15etik 17:00etara egongo dira Iruran. Ekintza honetan parte hartzeko, ordea, kaskoa eramatea behar-beharrezkoa da. Bestalde, bihar, autorik gabeko eguna denez, Kale nagusian ibilgailuentzat karril bat egongo da irekita soilik. San Migel plaza oinezkoentzat bakarrik izango da.

ANOETA ▶

Joseba Agirrezabala ikastolan

Anoetako ikasleek, Mugikortasun Iraunkorreko Astearen baitan, Joseba Agirrezabala txirindulari anoetarrarekin saio praktikoa izango dute gaur. DBH3 eta DBH4ko ikasleei zuzenduta egongo da saioa. Arratsaldean bilduko dira guztiak Ikastolan. Bihar, berri, Autorik Gabeko Eguna izango da, eta hor ere ekintza ugari izango dituzte gaztetxoek eta helduek.



OGI-GOXO
OKINDEGIA eta GOZOTEGIA

kale nagusia, 26 • 20150 BILLABONA • Tel. 943 69 32 94

IRURA ▶ JAIAK

San Migel jaiak hasiko
dira ostiralean Iruran
urriaren 3a bitarteSan Migel eguna edota jubilatuen eguna izango dira,
besteak beste, festak iraungo duten aste guztian zehar

GARAZI AZKUE

Laster iritsiko da San Migel eguna, eta egun horren bueltan baita Irurako jaiak ere. Ostiralek hasita, ia egunero izango dute irurarrek zertan parte hartu.

Ostiralean, iluntzean jantziko da festa kolorez herria. Herensugea, suziriak, zanzantzarrak eta erraldoiak bilduko dira lehen egunean San Migel plazan.

Larunbatean, goizean goiz hasiko da festa, baina fresko-fresko iritsi beharko dute irurarrek arratsaldera, sagardo dastaketa izango baita, Erneso Lasa, Zabala, Barkaiztegi, Petritegi, Astiazaran, Isastegi, Lizeaga, Gaztañaga eta Herrero sagardogileen eskutik.

San Migel eguna irailaren 29an izango da, asteazkenean. Dantzarien eguna izango da asteazkena eta inguruko he-

rrietatik dantzariak gertutatu-ko dira Irurara.

Urriaren 3an, berriz, jubilatuen eguna ospatuko dute irurarrek; meza nagusia eta bazkaria izango dituzte.

Berrikuntzen aldetik, Scalextric lasterketak nabarmendu dituzte antolatzaileek, 10 urte-rik gorako haurrei zuzendutako ikuskizuna izango da; urriaren 2an egongo dira goizez eta arratsaldean.

IRURA ▶

Langile bat
kontratatu du
Irurako Udalak

Irurako Udalak, udal liburutegian eta ludotekan laguntzeko langile bat kontratatuko du 2004/2005 ikasturterako, lanaldi erdiz. Interesa duenak, Udaleko bulego orokorretan aurkeztu beharko du bere curriculum, irailaren 24a baino lehen. Lana lortzeko, Iruran erroldatua egotea, euskaraz jakitea eta BBB edo FP2 gaindituak izatea ezinbestekoa izango da. Kontuan izango da haur eta gazteen heziketa eta aisialdian esperientzia izatea.

EGITARAUA ▶

IRAILAK 24, OSTIRALA

19:30. Jaien hasiera: Herensugea ateratzea, suziria, alkatearen agurra eta kalejira buruhandi eta erraldoekin eta Zubietako zanzantzarrak.
21:00. Barrikotea San Migel plazan.
23:30. Tapia eta Leturia.

IRAILAK 25, LARUNBATA

09:00. Gazte festako taldea San Migel plazatik aterako da.
11:00. Marrazki lehiaketa.
12:00. Pilota eskolako haurren arteko xare eta pala partidak trinketean.
14:30. Gazteen bazkaria Aizpurua jatetxean eta haurren bazkaria San Migel plazan.
15:30. Haurrentzako ludoteka eta tailerrak trinketean.
17:30. Ume festa: *Munduko arrautza handiena* Gorringo taldearen eskutik Kaskailu parkean.
18:30. *Non dago trukoa?* Haur ikuskizuna Gari, Montxo eta Joxelontxo pailazoekin Loatzo plazan.
19:30. Sagardo dastaketa San Migel plazan trikilariekin.
23:30. Txamuyo hirukoa tango eta milongak eta bi dantzari bikote, labaderoaren ondoko plazan.
24:00. Nok eta Reincidentes taldeak San Migel plazan.

IRAILAK 26, IGANDEA

11:00. Meza nagusia abestia, Perossiren II. Pontifikala.
12:30. Gorritiren abereak haurrentzat.



Ostiralean hasiko dira San Migel jaiak. A. IPINTZA

17:30. Herri kirolak frontoian: Daniel Vicente eta Mikel Mindegia aizkolariekin eta Mieltxo Saralegi harrijasotzailearekin.
18:30. Kataluniako Torrelles eta Llobregat herriko L' Esbart San Marti taldearen eta Poloniako Polany dantza taldea San Migel plazan.
20:00. Ruper Ordorikaren kontzertua San Migel plazan.

IRAILAK 28, ASTEARTEA

19:00. Buruhandiak plazan eta kalean.
21:00. Kantu afaria San Migel plazan Berriketan taldearekin.

IRAILAK 29, ASTEAZKENA

09:00. Goiz eresia txistulariekin.
11:00. Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia. Ondoren dantzari txikien saioa eta hamaiketako bertsolariekin.

18:00. Irura, Zizurkil, Villabona, Ibarra eta Anoeta herrietako dantzarien saioa.
19:30. Karidadeko benta taldearen musika emanaldia.

URRIAK 1, OSTIRALA

19:00. Kalejira buruhandi eta erraldoekin San Migel plazan.
19:30. Txistor-jatea Share elkarrearen aurrean.
22:30. *Play back* jaialdian frontoian.
00:15. Dantzialdia San Migel plazan Izotz taldearekin.

URRIAK 2, LARUNBATA

11:00. Haur parkea gaztelu puzgarriekin eta jokoekin San Migel plazan.
12:00. Scalextric lasterketak haur eta gazteentzat frontoian.
13:30. Ezkonduen dantza soka San Migel plazan.
14:30. Ezkonduen bazkaria Aizpurua jatekean.
17:00. Herri kirolak eta Baserriko jolasen jaiak Kulkiren eskutik San Migel plazan.
19:00. Scalextric lasterketa gaztetxo eta helduentzat frontoian.
23:30. Dantzialdia Akelarre taldearekin San Migel plazan.
24:00. Herensugea erretzea eta ondoren berrito ere dantzialdia.

URRIAK 3, IGANDEA

12:30. Meza nagusia.
14:30. Jubilatuen bazkaria Zaharren Bittokian. Ondoren jokoetako sarien banaketa eta dantzialdia egoitzan.

AMEZKETA ▶ PILOTA



Antolatzaileak, txapelketako laguntzaileak eta finalen jokatuak pilotariak. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Larrunarri pilotalekuko harmailak jendez beteta ikus zitezkeen herenegun arratsaldean. XV. Joxean Tolosa Txapelketako finalak jokatu ziren; txapelketan zeharreko partidetan ikusitako maila zela-eta ikusmin handia zegoen. Hirutik bi finaletan, gainera, eskualdeko pilotariak jokatzeko zuten; horrek ere emozio handia gehitu zien finaleko partidari.

17:00etan hasi zen lehenengo partida eta «ordu erdi lehenago jende askok hartua zuen bere lekua» azaldu dute antolatzaileek.

Jauregi eta Otxandorena izan ziren pilotalekuko eszenatokian agertzen lehenak. 18-16 irabazi zuen Otxandorenak; kadeteen partida «hirurretatik lehiatuena» izan zen antolatzaileen ustez.

Aurrera-Saiazeko pilotariak

Aurrera-Saiaz Bidegoiango pilota taldeko pilotariak bi txapela eskuratu zituzten. Jubeniletan, Renobales eta Goenaga aritu ziren aurrez-aurre. Alegiarrak, herritarren eta senitartekoen txalo zaparrada tartean irten zen pilotalekura, baina hori ez zen nahikoa izan urduritasuna baretzeko: «Partidan zehar ez nuen batere gozatu», dio Ugaitz Renobalesek. Hala ere, eta larritasun momentuak

Hirutik bi txapela, eskualdean

Jubeniletan Renobales, eta, nagusietan Beloso izan ziren irabazle



Ugaitz Renobales eta Mikel Beloso sariak jaso ondoren. O.ESKIXABEL

FINALAK ▶

EMAITZAK

Kadeteak. Jauregi 18-Otxandorena 16.
Jubenilak. Renobales 18-Goenaga 12.
Nagusiak. Beloso 18-Arruti 5.

izan ziren arren, hasieratik markagailuan aurre hartzea lortu zuen txapela bereganatu: «Mitxelenaren aurka jokatuak finalerdian gustura geratu nintzen egindako partidarekin; finalean, berriz, urduritasuna medio, ez naiz gustura aritu».

Azken partidaren eskualdeko beste pilotari bat: Mikel Beloso. Honek ere txapela lortu zuen: «Egun ona izan nuen; jorkaldi guztiak ondo ateratzen zitzaizkidan», azaldu du Belosok. Arriskatzeko ere asmatu zuela zuela gaineratu du, bestalde. Azken bi tantoak, gainera, sakez egin zituen Aurrera-Saiaz taldeko pilotariak. Ondo ezagutzen diren pilotariak dira biak; pasa den astean bikote gisa jokatzeko aritu ziren Lezoko txapelketan, beraz, «bakiotzaren ahuleziak eta birtuteak», dio Belosok.

Arrutik txapelketako pilotaririk onenaren saria jaso zuen. Finalera iristeko bost partida irabazi zituen usurbildarrak; txapelketan zehar «maila ikaragarria» erakutsi zuela esan dute antolatzaileak.

Tolosa, ikusleen artean

Joxean Tolosa berak ez zuen huts egin hitzordura; urtero bezala, finalak «gertutik eta interes handiarekin» jarraitu zituela esan zuen. Bere ustez, finaleko bi partidetan eskualdeko pilotariak izateak, eta, gainera txapela eskuratzeak, inguru honetan pilota bizirik dagoela esan nahi du.

Antolatzaileak oso gustura agertu dira txapelketaren martxarekin eta baita ikuslegoaren erantzunarekin. Eta finalak espero bezain ikusgarriak ez izan arren, hurrengo urtera arte agurtu ziren gerturatu ziren guztiak gonbitea luzatuz.

IKAZTEGIETA ▶

Haurren zaintza mintzagai biharko hitzaldian

Cristina Otermin adituak hitzaldia eskainiko du bihar 16:30ean kiroldegian. *Helduak haurren zaintzari* izenburupean pertsona helduek haurren heziketan betetzen duten papera aztertuko dute, besteak beste. Hitzaldia Kutxaren laguntzarekin antolatu du Udalak.

IKAZTEGIETA ▶

Giltza txiki bat aurkitu dute udaletxe inguruan

Udaletxe ondoan, kutxazainaren inguruan, giltza bat aurkitu zuten atzo; giltzaren tamaina txikikoa dela azaldu dute. Giltza galduta duena udaletxetik pasa dadila.

ALBIZTUR ▶

Nagusiweb ikastarorako izen-ematea zabalik

Nagusiweb ikastaroa eskainiko da KZgunean irailaren 27tik urriaren 1a bitarte. Ordenagailuari eta Interneti buruzko oinarriko jakintzak irakatsiko dira. Egunero bi orduko saioak, 16:00etatik 18:00etarako ordutegian, eskainiko dituzte.

BIDEGOIAN ▶

Zauri larriekin erietxera eraman zuten herritar bat

Bidegoian eta Azpeitia bitartean, Urraki portuan, istripua izan zuen herengun 78 urteko F.U.O. izeneko bidegoiandarrak; 18:15ak inguruan gertatu zen ezbeharra. Suhiltzaileek gidariari autotik ateratzen lagundu zioten eta «zauri larriekin Asuntzion erietxera» eraman zutela azaldu du Ertzantzak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug. 616 93 17 88



Alegia. Eraikuntza berria, duplexak eta ebebizitzak 34.500.000 pezetatik aurrera. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Altzo. Erabat berriua dagoen ebebizitza salgai, 2 solairukoa, solairu bakoitza 85m²-koa. 707 m²-ko lursaila du. 943 69 68 56.

Ibarra. 69 m²-ko ebebizitza, trastelekua, egongela, sukaldia eta 2 logela. Eraiki berria, kanpokaldera begira. 4. pisua

igogailuarekin. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 90 m²-ko ebebizitza, egongela, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Eguzkitsua. 943 69 68 56.

Lizartza. Baseri oso polita, 155 m²-ko 2 solairu ditu, berriua, 1.800 m²-ko lursailarekin. 943 69 68 56.

Ordizia. 50m²-ko ebebizitza, 2 logela,

berrikuntza egin berria. Estreinatzeako. 25.000.000 pezeta. Ezin hobeto. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Ordizia. 85 m²-ko ebebizitza. Egongela, sukaldia handia, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. Berriua, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 185 m²-ko ebebizitza

zoragarria. Egongela, sukaldia-jangela, 5 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Oso ondo kokatuta dagoen garaje ibxia salgai. Eraikuntza berrikoa. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

Eskari handiagatik. Nekazal lursailak, urbanistikoko. Saltzeko eta alokatzeko. Inmo Ebesagasti. 943 69 68 56.

BERASTEGI ▶ GIZARTEA



Burdina taldea aritu da uda honetan Bizkotx meategia berritzen. HITZA

Meategi zaharra berrituz

Berastegin, Bizkotxeko meategian aritu da lanean uda honetan Burdina taldea; ondareak berreraiki eta garaiko historia ezagutzeko izan da helburua

IÑIGO TERRADILLOS

Andoaingo Burdina taldea 2003. urtean hasi zen Leitzarain bailarako ondare historikoa berreskuratzen. Lehenago ere, Tren Txiki-ko 31. taldea izenarekin boluntario talde honek eginak ditu auzolandegi gehiago hainbat urtez zonalde honetan.

Batetik, natura bera ondare desagertarazten ari da, eta bestalde, erakundeek bailara alde batera utzita dute; eta azkenik, pertsona ezezagunek eragindako erasoak dira, talde honen arabera, Leitzarain bailara gaur egun dagoen egoeran egoteko arrazoak nagusiak.

Egoera larri honi aurre egiteko sortu zen Burdina taldea, eta herritarren eta Villabona, Andoain, Berastegi eta El-duingo udalen laguntzarik eta partaidetzarik gabe, ezingo lukete auzolandegirik antolatuko

bailarako ondarea berriz ere Leitzaraingo zati berri bat izan dadin.

Bizkotxeko meategia

Pasa den abuztuaren 23tik 27ra egin zuten orain arteko azken auzolandegia. Egun horietan Berastegin, Bizkotxeko meategietako lehen galeriaren plaza garbitu zuten. Eta, gainera, Bizkotxeko meategietako trenaren lehen tren karrila garbitu eta meatez eremuko antzinako orratz-zainaren eraikina berreskuratu dute uztailean egindako beste auzolandegietan.

Txotaneako meatez eremua Berastegiko udalerrian kokatzen da, Bizkotxeko meategien hegoaldean, Tren Txiki 20. kilometroan eta egindako ikerketen arabera, 1897-1933 urte bitartean ustiatu ziren meatez hauek.

Burdina taldeko antolatzaile-

etako bat da Xabier Arruti eta berak dioenez gero eta interes handiagoa azaltzen dute gazteek horrelako auzolandegietan. Pasa den urtean, 12 lagunek eman zuten batz bestea izena parte hartzeko eta aurtengotarako 25 izan dira. Auzolandegi hauetan, gainera 13-50 urte bitarteko jendea izan da izena eman duena, beraz ez dago mugarik adinean. Ondarea berreraikitzen egiten den lanaz gain, meategi hauen inguruan jasotzen den informazioa da baita ere baloratzen dutena bertan lan egiten dutenek.

Antolatzaileen helburua, etorkizunearan, lanak bukatu eta antzinako meategi hau zaharberritu ondoren jendeak ezagutu dezan bisitak egitea dela dio Xabier Arruti.

Zonaldea garbitzen eta berreraikitzen lan handia egiten badute ere, bertako historia aztertzen eta bertako jendearekin hitz eginez datuak lortzen

ere ez dute gutxiago egiten. Bestalde, meategietako galerietan egindako lanarekin planok egitea ere lortu dute.

Aurrera begirako proiektuak

Burdina taldeak aurrera begira proiektu asko dituela dio antolatzaileak; orratz-zainaren eraikinarekin lanean jarraitu, tren karril zaharra garbitu, merreraikitzen egiten den lanaz gain, meategi hauen inguruan jasotzen den informazioa da baita ere baloratzen dutena bertan lan egiten dutenek.

Ondareak berreskuratze lanetan edo historia ezagutzeko parte hartu nahi duenak edo informazio gehiagorako zenbaki hauetara hots egin dezake: (Txanka) 699 48 76 83 edo (Jaione) 618 75 82 34.

IBARRA ▶

Ibarrak galdu egin zuten Sestaoren aurka

Ligako bigarren partida galdu zuten ibartarrek, hutsegite askorekin

I. TERRADILLOS

Ligako bigarren partida jokatuko izan zuten igandean Ibarra areto-futbol taldeak Sestaoren eta punturik lortu gabe bueltatu zen berriro etxera 5-2 ko emaitzarekin.


Ibartarren akatsak izan ziren lortutako emaitzaren errudun. Lehenengo minututik izan zuten, gainera, eragina akatsok, defentsan egindako hutsegite baten ondorioz iritsi baitzen sestaoarren lehendabiziko gola. Minutu bat geroago, eta antzerako akats bat eta gero bigarrena egin zuten etxeko taldeak. Gauzak ez ziren ondo hasi Ibarra kontzertatuta, konturatzerako bi gol baitzaituzten kontrari eta lan handia egin behar zuten partidari buelta emateko.

Atsedendaldirako hiru minutu geratzen zirenean, berriro ere Sestaok, hirugarrena sartzea lortu zuen.

Bigarren zatian Ibarra gogotsu eta indarberriturik atera zen aurkako atera helduz, baina asmatu gabe. Beste hutsegite bat izan zen orduan defentsan eta etxekoek 4-0koa egin zuten. 38. minutuan Pradosek 4-1ekoa egin zuten Ibarrentzat. Karrerak bere atean sartu zuten ondoren, eta Aierzak 5-2 utzi zuten markagailuan.

Ez da hasiera ona izan aurtengo ligan Ibarrentzat. Datuak horien arabera, etxean berriro, ligako hirugarren partida jokatuko dute.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@ismoernio.com
www.ismoernio.com

Tolosa. Emeterio Arresen, San Frantzisko aldera pisu ederra garaje eta trastelekuarekin.

Tolosa. Alde zaharrean hainbat etxebizitza salgai 119.000 eurotik aurrera.

Tolosa. Amaro auzoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, pisu ederra garajearekin salgai.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108

m2-ko pisu ederra salgai.

Trastelekuarekin.

Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitua.

Tolosa. Fueros kalean, guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!

Tolosa. Erdialdean, azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Lurramendi auzoan, Sam-eko etxe atxikia salgai, lorategi eta jardinarekin. Ikustekoa

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 72.735 eurotik gora.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Irura. 2 logelako etxebizitza; bizitzera sartzeko moduko pisua.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxeondo. Pisu ganbara eta garaje itxiarekin.

Villabona. Kale berrian 180 m2ko etxebizitza berokuntzarekin.

Villabona. Errota. Pisu, ganbara eta garaje itxiarekin.

Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Andoain-Urrieta. Hainbat etxebizitza berri eta 2. eskukoak.

Pabilioi eta lokaletan. Aukera handia; salmentan eta alokairuan.

Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

LEITZA ▶ PLAZAOLAKO II. BIZIKLETA MARTXA

300 txirrinduzale ibili dira Plazaolako trenbidean barrena

Eguraldi goibela goizetik, gerora argiuneak zabalduz eta Leitzaldeko parte-hartzaile gutxi samar igandeko martxan



Batzuk izena ematen eta besteak abiatzeko zain. J. ASTIBIA.



Leitzaldetik Lekunberrirantz, ibilaldiari ekinez edota ekitekotan, herriko parte hartzaile batzuk. Bakarrenetakoak. Bejondeiela!. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Igande goizean, Andoain eta Lekunberri trenbidez elkartuz burutu zen Plazaolako II. Mendi Bizikleta Martxan, 300 bat lagunek parte hartu zuten, gehienak Andoainetik bertatik

abiatuta, iazko markak (ehun lagun) erraz gaindituz. Antolatzailleak, alde horretatik, oso gustura agertu ziren atzo, balorazioa egiterakoan, baina «Leitzan bertako jende oso gutxi zuten, ordea. «Herriatik bertatik

abiatzeko aukera ere izanik, lastima izan da», zioten. Batzuk geltokitik abiatu ziren Lekunberrirainoko 15 kilometroko bidea egitera. Erasote auzoan, martxalariak lagunduz, bide zati bat egin zuenik ere izan omen zen, bitxikeria modura

atzeneko puntan zihoan esko-batik adierazi zuten.

Bestela, goizetik eguraldi goibel eta langartsua izan bazen ere, «aterruneak luzatuz eta giro epela izan genuen eta martxaren bukaerarako lagundu zuten, *luncha*, zozketak... eta beste egiteko moduan», argitu zuten bertatik.

Andoaindik abitu zen jendea, heldua eta bizikletan zaildua zen gehienbat. Ordu beteren burura, Leitzako geltokira iritsi zenik bazen. Hemendik atera zirenak, bestalde, familiak ziren gehienak, taldeak, martxa lasaiagoan ibiltzeko asmoz zihoazena. Edozein moduz, ibilbideaz gozatzeko aukera izan zuten eta Lekunberrira iritsitakoan, askok Uitziko tunela aitatzten zuten aurtengo ekitaldiko berezitasun modura, «harri kozkor handi samarrak ere bazeuden», kexatuz batzuk. Izan ere, egun horretarako moldatu baitzen tunel hori, argiztatu eta zorua berdindu eta urak ateraz; «harri kozkor» horiek, trenbideko berreko balastro harriak dira eta horren gainean bizikletaz ibiltzea, bestela baino zailxeago izaki, baina gehienek abenturaxotzat jo zuten Leitzaranetik Larraunerako igarobidea den 2.700 metroko tunel horretako zeharkaldia, «poliki gelditu da» zioten tunelaz, hurrena berreskuratu beharreko zatia izateko gogoz, askok.

LEITZA ▶ KIROLA

Banako berdinketaz ekin dio futbol denboraldiari Aurrera futbol taldeak

Arkixkil futbol zelaian eta Lekunberriko Beti Kozkor taldearen aurka egin du estrainekoa

J. ASTIBIA

Igande arratsalde, 17:30ean, jokatu zuen Aurrera Futbol Taldeak 04-05 denboraldiko lehendabiziko partidua, Lekunberriko Beti Kozkor taldearen aurka egin ere, eta banako berdinketaz bukatu zuten Arkixkil futbol zelaiko nor gehiagoka, bigarren denbora tartean, Ene-

ko Barberiak sartu zuen gola zela bide. Lekunberriarren berdinketako gola ere zati horretan izan zen.

Partidu hasiera aterrunearekin batera suertatu bazen ere, lehendabiziko denbora tartea aurrera joan ahala, bixi-bixi eraso zion langarrak, Leitzako taldeak ere modu berean egiten ziolarik eraso, aurkarien



Aurrerak eraso ugari egin zituen lehendabiziko zatian. J. A.

ateari. Azkar jokatuz, dezentean iritsiz, baina tantorik lortu gabe. Bigarren denbora tartean, berriz, motelago aritu ziren jokoa, partiduko bi golak or-

duan ikusi baziren ere, talde bakoitzak bana eginez.

Ehun bat ikusle bildu ziren zelaian, batek hasiera zozketako sariarekin egin zuelarik ere.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaizta: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, Nagusia, 7, (Tolosa). 943 67 06 48.
 Larraia M.I., Elbarren, 95, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aiztondo. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 67 59 40.

Leitza. Pertsona bat behar da asteburuetan Leitzako taberna batean lan egiteko. 619450249.

Tolosa. Pertsona euskalduna behar da modakoa ez den denda batean lan egiteko. 157 posta kutibatila. Argazkia bidali.

SALGAI

Opel Zafira. 3 urteko Opel Zafira salgai. Deitu 618 37 15 43ra.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Iruja. Komunikazio elementuen inguruan solasaldia jubilatuentzat 17:00etatik 18:00etara.
Tolosa. Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Harizpe elkartearen oporrak Benidormen 370 eurotan urriaren 16tik 30era. Izen-ematea hilaren amaiera arte elkartean.
Tolosa. Gimnastika erritmikoko eskolan izen-ematea Igarondo igerilekuan 17:00etatik 19:30era eta Tolosa CFko bulegoetan.
Tolosa. Ana Revillaren hitzaldia: *Aldaketak elikaduran eta joera berriak.* 19:00etan Kultur Etxean.
Tolosa. *Zaharriak*, hilaren 26a arte, Ferialekuan.

MUGIKORTASUN ASTEA

Anoeta. Saio praktikoa bizikletari buruz, Joseba Agirrezabalarekin DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat. Ikastolan arratsaldez
Iruja. Bizikleta jolasak 15:15etik 17:00etara, Oriako Txirriindulari Eskolak antolatuta. Kaskoa behar da
Tolosa. Euskal Herria plazan txokolatea 17:30ean; ipuin kontalariak 18:00etan eta zinema 20:00etan.
Kultur Etxean Mugikortasun Foroa 19:00etan, Tokiko Agenda 21eko aholkularitza batzordearen saioa. Euskal Herria plazaren eta Alde Zahararen peatonalizazioa.
Zuzurkil. Haurrak oinez joango dira eskolara.

ZINEMA

Tolosa. *Fahrenheit 9/11.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Ikuslearen eguna.

'Bordondantzaz' jakiteko

TOLOSA ▶ Jose Maria Jimeno Juriok idatzitako 'Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik' salgai da eskualdeko liburutendetan



Argitara eman berri den liburuaren azala. HITZA



Jose Maria Jimeno Juriok. HITZA

FITXA ▶

Izenburua. *Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik.*
Egilea. Jose Maria Jimeno Juriok.
Argazkiak. Joxe Mari Gorrotxategi.
Argitaratzaileak. Udaberri dantzari taldea eta Aranzadi zientzia elkarteak.
Babeslea. Tolosako Udala.
Orriak. 332.
Prezioa. 25 euro.

JOXEMI SAIZAR

San Joan jaien barruan aurkeztu arren, orain arte ez da kaleratu. *Bordondantzari* buruz, Tolosari buruz eta herriko historiaz jakiteko lagungarria. Duela urte batzuk Jose Maria Jimeno Juriok historialari nafarrak —duela urte pare bat hila— idatzi zuen, Jose Mari Gorrotxategi egindako argazkiak ditu eta Aranzadi zientzia elkarteak eta Udaberri dantzari taldeak argitaratu dute Tolosaldea Historia Bildu-

maren barruan, Udalaren babesaz.

1717an *Bordondantzaren* inguruan izan zen prozesua da liburuaren gakoa, baina XVIII. mendeko Tolosari buruz azalpen interesgarri ugari ematen ditu. Urte hartan Santa Maria-ko parrokoak bordondantzariari sarrera debekatu zion, urte askotako ohitura hautsiz. Herriak eta alkateak aurre egin zioten eta prozesu bat sortu zen. Epaiaketa hartako dokumentazioa arakatu z informazio ugari jaso zuen Jimeno Juriok

eta orain eskuarte dugun liburu idatzi zuen.

Baina prozesuarekin batera, makina bat xehetasun ematen ditu historialari nafarrak. XVIII. mendeko dantzen elementuak aipatzen ditu: tresnak, jantziak, musikariak, koreografia... Gaur hartako Tolosaren deskribapena egiten du liburuak: hiri nola bilakatu zen, *Bordondantzarekin* zerikusia duten eszenatokiak aipatzen ditu —Beotibar, Arramele, Igerondo...—, alderdi soziologikoak —mailaketa soziala—, hizkuntza

xehetasunak, talde etniko baztertuak, erakundeen alorra, Udalaren egitura, justiziaren eta Elizaren antolaketa...

Egun hauetan salgai jarri da liburu hau eskualdeko hainbat liburutetan. «Tolosar batentzat oso interesgarria da, arlo instituzionala, soziala, dantzarena, folklorikoa... biltzen dituelako», adierazi zion HITZARI Roldan Jimeno Arangurenak —Jose Mariaren semeak— aurkeztu zenean. Orain dute tolosarrek eta historia eta folklozealeek lan hau eskuratzeko garaia.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Eneko (Tolosa). Gaur 2 urte.
Zorionak Itoitz, Egoitz eta familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Irati Albeniz Arandia (Tolosa). Gaur urtebete. Muxu handi bat ebekoaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!